



**DuranGOAZEN JAIK
ASKE DISFRUTATZERA!**

**SAN FAUSTOETAN EZ DUGU INOLAKO
ERASO MATXISTARIK ONARTUKO!**

DURANGOKO JAIETAN INDARKERIA MATXISTA PREBENITZEKO ETA HORREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA: 3
2. EZARTZE EREMUA ETA INDARRALDIA: 4
3. ARAUDI MARKOA: 5
4. INDARKERIA MATXISTAREN KONTZEPTUALIZAZIOA: 7
5. SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIA PIZTEA: 9
6. LEHENGO ARRETA, INFORMAZIOA ETA DERIBAZIOA: 13
7. ERANTZUN PUBLIKOA/K: 18
8. ERANSKINAK: 23

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA

Protokolo honek lege betebeharrak bati erantzuna ematen dio. Izan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistari Gabeko Bizitzetarako Legearen 66.3 artikuluen arabera, indarkeria matxistari aurre egiteko, "tokiko administrazioek sustatuko dute beren lurralde-eremuan lankidetzak-akordioak eta jardura-protokoloak hartzea, bakoitzak bere errealitatera garatu, zehaztu eta egokitzeak".

Gainera, badira urteak Durangoko Udalak emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako udal politikak garatzen dituela. Hots, indarrean dagoen (2002-2027) bere III. Berdintasunerako Planeko 4. ardatzean ("Indarkeria matxistari gabeko bizitzak"), bi helburu estrategiko hauek aipatzen dira:

- Prebentzioa eta sentsibilizazioa areagotzea.
- Indarkeria bizi duten emakumeentzako arreta integrala bermatzea, ahaldunderako ibilbideak eskainiz.

Hain zuzen, 2.4. helburu operatiboaren barnean (*Indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralerako, herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea*) hiru ekintza hauek zehazten dira:

- M.2.4.1. Jaien eta aisialdiaren testuinguruan indarkeria matxista eta sexu-erasoen inguruan berariazko prebentzio-kanpainak bideratzea elkarte feministekin elkarlanean.
- M.2.4.3. Jai batzordearekin batera jaietako protokoloa kontrastatu, adostu eta martxan jartzeko lanketa egiten jarraitzea, udaleko sail ezberdinen inplikazioarekin.
- IM.2.4.4. Udalak jaien testuinguruan beste zerbitzu batzuk martxan jarri behar dituen aztertu, udaleko sail ezberdinen eta jai batzordearen inplikazioarekin: jaietako babes eta informazio puntua, larrialdi telefonoa... Mugimendu feministarekin elkarlanean.

Hortik abiatuta, Udalak, bere indarkeria matxista unitatearen bitartez, San Fausto jaietan indarkeria matxista prebenitzeko, artatzeko eta salatzeko Protokolo bat sortzeko prozesu partehartzaile bat martxan jarri zuen 2025eko maiatzean, herri eragileekin batera.

Nahiz eta Durangon beste jai herrikoak dauden, Protokolo honen irismena San Fausto jaietara mugatzen da, bertan jasotzen diren arreta-baliabideak bakarrik aurreikusten direlako jai hauetarako. Halere, Protokoloan agertzen diren orokortasunak jai guztietara zabaltzeko daitezke.

2. EZARTZE-EREMUA ETA INDARRALDIA

Ezartze eremuak protokolo bat noiz aplikatuko den adierazten digu. Horretarako garrantzitsua da zehaztea zein momentutan eta zein egoeratan aplikatuko den protokoloa.

Durangoko jaietan indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa (jarraian, Protokoloa) Durangoko San Fausto jaietan aplikagarria izango da, normalean urriaren 13ko aurreko eta osteko asteburuetan ospatzen direnak. Durangon ematen diren beste jaietarako ere erabilgarria izan daitekeen arren, bertan jasotzen diren zerbitzuak eta aurreikusten diren koordinazio-egiturak ez dira beste jaietan aktibo egongo.

Protokoloa edozein indarkeria matxistaren aurrean arreta eta erantzuna emateko sortua dago, hau da, pertsona baten genero identitatea, genero adierazpena edo/eta sexu-orientazioagatik ematen diren erasoei erantzuteko.

Gainera, Protokoloa aplikagarria izango da hurrengo kasuetan:

- Erasoa Durangon edo mugakideak diren herrietan gertatzen denean (Abadiño, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Dima eta Zornotza) Durangotik bertara edota bertatik Durangora joateko bidean gertatzen direnean (San Faustoko jaien egunetan).
- Erasoa San Faustoko jaiak irauten duten egunetan gertatzen denean.
- Komunikabideetan eraso baten berri egon dela argitaratzen denean, betiere Protokolo honen arduradunek informazioa fidagarria dela erabakitzen dutenean.
- Nahiz eta erasotuak zuzenean ez salatu, beti erantzun publikoa orokor bat emango da, inolako daturik eman gabe, indarkeria matxista onartezina dela adierazteko.

Biktimaren konfidentzialtasuna edo/eta segurtasuna bermatu ezin denean edo/eta biktimak espreski salaketa publikorik ez egotea eskatzen duenean, talde eragileak erabakiko du nola jardun.

Protokolo hau 2025eko irailaren 24ko Durangoko Udalaren Osoko Bilkuran azaldu eta gero, indarrean egongo da epemugarik gabe.

Urtero, jaiak amaituta eta Udaleko indarkeria matxista unitateak sustatuta, Protokoloaren inplementazioaren ebaluazio bat egingo da eta, horren arabera, beharrezkoak diren aldaketak egingo dira.

3. ARAUDI MARKOA

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larrienetako bat da eta euskal administrazioen betebeharra da horri aurre egitea, beharrezkoak diren tresnak erabiliz eta sortuz. Indarkeria matxistaren aurrean ematen den erantzuna egokia, nahikoa eta eraginkorra izateko, erreferentziazko araudi markoak ezartzen dituen jarraibideak kontutan hartu behar dira.

Aipatu beharreko lehenengo tresna juridikoa **Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena, 2011)** da.

Istanbulgo Hitzarmena izenez ezagutzen dena, loteslea eta 2014tik indarrean dagoena, Europan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan nahitaezko lehen tresna da. Izan ere, orain arte indarkeriaren prebentzioarekin, biktimen babesarekin eta erantzuleak epaitzearekin lotuta ezarritako konpromiso garrantzitsuenetako bat da. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larritzat jotzen du, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ikuspegia zabaltzeko beharra ezartzen du; hala, zabaldu egiten da **genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak** ematen duen genero-indarkeriaren definizioa. Hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz gain, hitzarmenak zabaldu egiten ditu emakumeen aurkako indarkeria-motak, hala nola sexu-indarkeria, nahitaezko ezkontzak, genitalen mutilazioak, abortua eta nahitaezko esterilizazioa, laguntza edo konplizitatea eta saiakuntza, eta kultura-ohituren esparruan gauzatutako indarkeria. Gainera, indarkeria matxista kontuan hartzen du biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana alde batera utzita.

Araudia Istanbulgo Hitzarmenera egokitzeak berekin ekarri du estatu mailako hainbat araudi berrikustea, eguneratzea eta onartzea, besteak beste **Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna bera (2017)**.

Euskal Autonomi Erkidegoan erreferentziazko tresna juridikoa **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testuategina** da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua. Horren arabera, euskal erakundeen politikak gidatuko dituen plangintza ezartzen da legealdi bakoitzean. Egun indarrean dagoena **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia** da.

Euskal Berdintasunerako Legeak emakumeen kontrako indarkeria matxista horrela definitzen du bere 54. artikuluan: "Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikiak, neska nerabeak eta emakume transexualen kontra egiten dena barne, edo neurriz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan.

Indarkeria egitezkoa zein ez-egitezkoa izan daiteke, eta bitartekoak izan daitezke fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak, mehatxuak, larderia eta hertsapena barne, baldin eta haien ondorioa min, sufrimendu edo kalte fisiko, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa bada”.

Gainera, artikulua berdinean, hau zehazten du: “Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitu, hari kontra egin, erreparatu eta ezabatzeko xedea duten politikak berdintasun politiken esparruan kokatu behar dira, eta EAEko administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duten organoek, bakoitzak bere eskumen eremuan, lidergoaz eta koordinazio orokorraz arduratu behar dute”.

Koordinazio horri dagokionez, erreferentziazko tresna da 2023an sinatutako **EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III Akordioa**. Akordio hau botere publiko guztien esfortzuak bateratzeko eta hauen arteko koordinazioa zehazteko tresna da eta, hirugarren honetan, koordinazio hori 2023ko legeak ezartzen dituen berrikuntzetara egokitzen da.

Lurralde mailara etorrita, kontuan hartzekoa da **Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Foru Plana (2021-2024)**.

Eskualde mailan, **Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II. Protokoloa** indarrean dago 2017tik. Erakunde sinatzaileak Ertzaintza, Durangaldeko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak, Elorrio, Berriz, Abadiño eta Durangoko Udaletako Berdintasun arloak eta Osakidetza dira. Protokolo horren ondorioetarako, indarkeriaren kontzeptualizazioa emakumeen kontrako indarkeria matxista da. Gainera, emakumeen bikoteetan eman daitekeen indarkeria ere aintzat hartzen da.

Udal mailan, indarrean dago **Durangoko Udaleko Berdintasunerako III. Plana (2022- 2027)**, zein, bere 4. ardatzean (“Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak”), indarkeria matxistari aurre egiteko helburuak eta neurriak zehazten dituen. Izan ere, bi helburu estrategiko hauek aipatzen ditu:

- Prebentzioa eta sentsibilizazioa areagotzea.
- Indarkeria bizi duten emakumeentzako arreta integrala bermatzea ahalduztzerako ibilbideak eskainiz.

Helburu horien lorpena sustatzeko, eta mugimendu feministak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Udalak **indarkeria matxistaren unitatea** sortu zuen 2024an. Diagnostiko baten bitartez unitatearen beharra ondorioztatu zen eta 2024ko maiatzean unitatea martxan jarri zen, teknikari baten kontratazioa barne.

4. INDARKERIA MATXISTAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

Protokolo honen ondorioetara, **INDARKERIA MATXISTA**ren kontzeptualizazio zabala aintzat hartzen da, hau da, gizarte patriarkalak esleitutako **genero-eskemak hausten dituzten gorputzetan (intersex, transgeneroa, transexualak, homosexualak, lesbikoak) eta sexu/genero tradizionalaren eskema errepikatzeari uko egiten dioten emakume eta gizon guztien kontra erabiltzen diren indarkeria-mota guztiak. Hau da, emakumeen kontrako indarkeriaz gain, indarkeria lgtbika+fobikoa ere kontutan hartzen da.**

Kontzeptualizazio honi jarraituz, indarkeria matxistaren barnean, indarkeriaren hurrengo adierazpen ezberdinak sartzen dira:

INDARKERIA SEXISTA EDO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria, nagusitasun patriarkaleko botere-harreman desberdin eta hierarkikoen adierazpen bat da eta, mota guztietan (fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa edo zibernetikoa), oztopo bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko (*Durangoko Udaleko Berdintasunerako III. Plana. 2002-2027*).

Emakume guztiek jaso dezakete indarkeria sexista, ez egiten dutenagatik, baizik eta direnagatik edo/eta ordezkatzan dutenagatik. Emakumeen kasuan, haien gorputzak ez du normaltasun-eskema tradizionalari aurre egin behar indarkerien objektu izateko; emakume izateak eta/edo itxura emateak berekin ekartzen ditu murrizketak, kontrolak eta indarkeria-mota eta -maila desberdinak (*Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria, 2024*).

GENERO-INDARKERIA

Genero-indarkeria erabiliko da bikotekideak edo bikotekide ohiak indarkeria sexista edozein modutan erabiltzen duenean. Definizio hori bat dator genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko Lege Organikoak jasotzen duenarekin (2004ko abenduaren 29ko BOE): "Indarkeria fisiko eta psikologikoko ekintza oro, barne hartuta sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, hertsapenak edo nahierara askatasuna kentzea gizonak beren ezkontide izan diren emakumeen aurka edo haiekin antzeko harreman afektiborik izan ez duten emakumeen aurka".

INDARKERIA LGTBIQA+FOBIKOA

Gorputz intersex, transexual edo transgeneroen aurka eta heteroaraua hausten dutenen aurkako ezinikusia eta gaitzespenaren ondoriozko indarkeria da. Era estrukturalean hainbat indarkeria mota daude, patologizazio medikotik eraso fisikora, eta bakartzera eraman dezakeen indarkeria zuzeneraino.

Protokolo honen ondorioetara, jai-giroan aplikatzen dela, sexu-indarkeriaren xehetasunak kontutan hartu behar dira.

SEXU-INDARKERIA

“Izaera sexuala duen edozein ekimen, onartua ez dena edota bizi sexualaren garapen askea baldintzatzen duena, edozein eremutan, publiko zein pribatuan, baita eremu digitalean ere” (*Askatasun sexuala bermatzeko 10/2022 Lege Organikoa*).

Dena den, zigor-kodeko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoko II. liburuaren VIII. tituluan aurreikusten diren delituak indarkeria sexualtzat hartzen dira.

Istanbulgo Hitzarmenak ezartzen duen bezala, sexu-indarkeria, “emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, derrigorrezko ezkontzak eta bortxazko beste praktika batzuk edo askatasuna bidegabe kentzea, baita emakumeen eta nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duten edo lesionatzen ahal duten beste indarkeria-mota batzuk ere sexu-indarkeria dira”.

5. SENTSIBILIZAZIOA, KONTZIENTZIA PIZTEA ETA PREBENTZIOA

Sentsibilizazioaren helburua indarkeria matxista ikusaraztea da, bere oinarri estrukturala ezagutaraziz eta ulertaraziz eta, horrela, pertsona bakoitzak indarkeria hori desagerrarazten aktiboki parte har dezan sustatuz.

Prebentzioak, bere aldetik, sustraietara joango den jarduketa integrala eskatzen du, indarkeriari aurre egiteko beharrezkoa den balio-aldaketa eragingo duen eraldaketa soziala sustatuko duena. Prebentzioak, kausen gainean jarduteaz gain, efektuen gainean ere jardun behar du, halakorik gerta ez dadin edo/eta berriro gerta ez dadin. Hiru mailatan egituratzen da:

- Lehen mailako prebentzioa edo prebentzio orokorra: egiturazko aldaketak (politikoak, sozialak eta kulturalak) lortzea dakar, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko. Lehen mailako prebentzioaren gakoetako bat haurren eta nerabeen prestakuntza da, baina gizarte osoarekin lan egitea eta aldaketaren aurkako diskurtsoei aurre egitea ere eskatzen du. Egiaztatu da sentsibilizazio ekintzak prebentziorako tresna eraginkorra direla, batez ere lehen mailako prebentzioon ondorioak dituelako.
- Bigarren mailako prebentzioa: indarkeria gertatzen denean, prebentzioa indarkeria garaiz detektatzea eta geldiaraztea ere bada. Horrek eskatzen du herritarrek, batez ere instantzia publikoek (baina ez bakarrik), irekitasuna eta interesa izatea indarkeriari aurre egiteko eta haren aurrean behar bezala erantzuteko.
- Hirugarren mailako prebentzioa: honek erasoen errepikatzea prebenitzea dakar, erasoak ezagutu eta salatu ondoren. Erreparazioarekin lotuta dago; izan ere, indarkeria "ez errepikatzea" emakumeen susperraldiaren oinarrizko baldintza da, baina, era berean, indarkeriaren aurrean gizartearen eta erakundeen posizioak duen irmotasunaren adierazle ere bada.

Protokolo honen bitartez hiru maila horiei bide emango zaie jarraian azaltzen den moduan. Orokorrean, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa lehen mailako prebentzioon

kokatzen dira; detekzioa eta lehengo arreta ematea, bigarren mailako prebentzioan; eta salaketa eta erantzun publikoa eta instituzionala, hirugarren mailakoan.

Sentsibilizazioa eta kontzientziazioari dagokionez, 2025eko prozesu partehartzailean plazaratu ziren ideiak kontuan hartuta, hauek dira nabarmendu beharreko ezaugarriak:

- Protokoloak **ahalduntze feministaren ikuspegia** txertatuko du, emakumeen agentzia eta defendatzeko eskubidea eta ahalmena argi helaraziz eta emakumeen arteko ahizpatasuna sustatuz.
- Indarkeria matxistari aurre egitea **denon (herritarren) ardura da**, nahiz eta pertsona edo agente bakoitzak ardura eta eskumen ezberdinak izan.
- **Gertakizun guztiak bere garrantzia dute.** Hortaz, kasu guztiei emango zaie beharrezkoa den arreta, nahiz eta ibilbidea eta ondorioak ezberdinak izango diren larritasunaren arabera.
- Herritar guztiek eta Durangoko jaietara hurbiltzen diren pertsona guztiek **Protokoloa ezagutzeko aukera** dutela **bermatuko da**, horretarako beharrezkoak diren komunikazio ekintza proposenak abiatuz.
- Protokoloak **indarkeria matxista zer den azalduko** du eta hau jaien testuinguruan **identifikatzeko tresnak eskainiko ditu.**
- Protokoloak eragile bakoitzak eta herritarrek **zer egin** ahal duten argi utziko du.
- Jaiak guztiontzako gozagarriak izan behar direnaren mezua zabalduko da.
- Jaiak gozagarriak izatea denon ardura den heinean, **gizonei jarrera egokia izateko jarraibideak** eskainiko zaizkie.

Aurreko puntuak bideragarriak izan daitezen, hauek dira aurrera eramango diren ekintza zehatzak:

- Protokoloa ezagutarazteko, jaietan nolabaiteko ardura duten langileei eta parte hartzen duten eragileei zuzendutako saioa egingo da.
- Jaietako egitarauan indarkeria matxistaren aurkako adierazpen eta jarraibide argiak jasoko dira.
- Informazio eta arreta puntuan ("puntu morea") baliabideen informazioa jasoko duen QR-a izango duten pegatinak edo/eta txapak banatuko dira.
- Eraso matxista baten aurrean nola jarduteko jarraibideak zabalduko dira triptiko baten bitartez, puntu morean egongo direnak eta Udaleko errekurtsio ezberdinetan ere: museoan, bibliotekan, udaletxean, turismo bulegoan eta Andragunean.
- Txosna batzordeak txosna gunean arreta telefonoa adierazten duen plotter handi bat jarriko du, urtero bezala.

Hortaz, Protokolo honen testuinguruan, **komunikazio kanpaina bat** egongo da **herritarrei eta jaietara datozen pertsona guztiei zuzenduta**. Izan ere, Protokoloaren difusioa ezinbestekoa da honen eraginkortasuna lortzeko.

Kanpaina horrek barne hartuko du:

1. Protokoloa eta eraso matxisten kontrako **kanpaina identifikatzeko *ad hoc* sortutako logo bat eta tipografia bat**. Zabaltzen diren material guztiak logoa eta tipografia eramango dute.
2. **Protokoloa ezagutzera ematea**: herriak eta jaietara hurbiltzen den edonork ezagutzeko hura existitzen dela. Protokoloaren laburpena egingo da zabaltzeko informazio erabilgarriena jasotzen, hau da, lehen arreta emateko pausuak eta artaketarako prozedura.

Horrek barne hartzen du:

- **Indarkeria matxista** zer den ulertzeko gakoak eta eraso bat ikusi edo/eta jasanez gero **pautak eta eskura dauden baliabideen informazioa**.
- Udalak eskaintzen dituen arreta zerbitzuen berri ematea: **puntu morea eta telefono bidezko arreta**. Zerbitzu hauen ezaugarriak eta helburuak argi azalduko dira formatu ezberdinetan: jaietako egitarauan, banatzeko triptikoetan, pegatinetan QR baten bidez. Gainera, arreta telefonoa modu ikusgarrian zabalduko da.

Hedabideak:

- Puntu morean banatuko diren triptikoak
- Udalaren ohiko komunikazio hedabideak: web orrialdea, Andraguneko Instagram eta bestelako hedabideak.
- Prentsa oharra.
- Protokoloan parte hartu ez duten Udaleko zerbitzu batzuek (Durango Kirolak, museoa...) eta Protokoloa eraikitzeke prozesuan parte hartu duten herri eragileek informazioa ere zabalduko dute haien ohiko bideetatik.
- Jaietako egitarauan QR bat txertatuko da Protokoloaren laburpena bideratzen gaituena.

- 3. Sentsibilizaziorako mezuak:** Pertsona guztiak jaiak askatasunean gozatzeko eskubidearen aldarrikapena izango da mezu nagusia. Mezu hori indarrez zabaltzeko lelo ezberdinak sortuko dira, urteaz urte aldatu ahal izango direnak.

Hedabideak:

- Herritik kartelak pegatuko dira (ahalbidetuta dauden puntuetan).
- Puntu morean txapak edo/eta pegatinak banatuko dira mezu nagusiarekin eta jarraibideei zuzendutako QR batekin.
- Jai Egitaraua
- Etorriko diren artistekin hitz egin beren kontzertuetan mezua eta indarkeria matxistaren kontrako gaitzespena egiteko edo/eta puntu morearen kokapena bere sareetara igotzeko.
- Autobus geltokietako markesinetan mezuak jasotzen duten kartela jarriko da.

Zabaltzen den informazioa ulertzeko erreza izan behar da eta bermatu behar da, batez ere, emakume guztiek ulertu ahal dutela: emakume nagusiak, emakume migratuak, aniztasun funtzionala edo/eta kognitiboa kontutan izan, etabar. Mezuak euskeraz eta gaztelaniaz egongo dira.

6. LEHENGO ARRETA, INFORMAZIOA ETA DERIBAZIOA

Sentsibilizazioa eta prebentzioaz gain, Protokolo honetan jaien testuinguruan ematen diren eraso matxistak artatzea ere du helburu. Hortaz, eta Protokoloa eraginkorra izan dadin, Durangoko Udalak herritarrentzako **berariazko arreta-zerbitzuak** eskainiko ditu jaien testuinguruan, hain zuzen, informazio eta arreta puntua eta telefono bidezko arreta zerbitzua.

EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III Akordioak ezartzen duen bezala, hauek dira akordioa sinatzen duten erakunde publikoek indarkeria matxistaren kontrako edozein jarduketa gidatu beharko luketen **printzipio gidariak**:

- Giza eskubideen errespetua: segurtasuna, pribatasuna eta adingabearen interes goren
- Genero-berdintasunaren sustapena
- Baliabideen irisgarritasuna eta bereizkeriarik eza
- Erreparazioa norbanakoarengan eta gizartean
- Etengabeko hobekuntza eta kontuak ematea

Eta hauek indarkeria matxistaren biktimak artatzen dituztenek **jardunbide egokiak direla ziurtatzeko, bete beharko lituzketen irizpideak**:

- Birbiktimizazioaren prebentzioa
- Ahalduntzea: autonomia eta autodeterminazioa
- Intesekzionalitatea
- Pertsona erdialdean jartzen duen arreta: pertsonalizazioa, parte-hartzea eta arretaren jarraitasuna
- Lan komunitarioa: prebentzioa eta elkartasunak
- Lehenbiziako arreta, eraginkortasuna eta arintasuna
- Erantzunkidetasuna eta erantzunaren osotasuna

Hauek izango dira ere Protokoloaren testuinguruan egingo diren jardunbideek jarraitu beharko dituzten irizpideak.

JAIETAKO BERARIAZKO ARRETA-ZERBITZUAK: EZAUGARRIAK ETA IBILBIDEA

Arreta zerbitzu hauek bi funtzio betetzen dituzte:

- Indarkeria matxista artatzea eta prebenitzea, herritarrek zerbitzu horietara jo dezaketelako eraso matxistaren bat jasoz edo/eta ikusiz gero.
- Eskura dauden baliabideei buruzko informazioa eskaintzea.

INFORMAZIO- ETA ARRETA- PUNTUA (PUNTU MOREA)

- Ikuspegi feminista duten eta Protokoloa ezagutzen duten indarkeria matxistan adituak diren bi hezitzailek hartuko dute parte.
- Datak (2025): Urriak 10, 11, 12, 13, 17 eta 18, 20:00etatik 02:00etara.
- Kokapena (2025): Landako Gunea.

TELEFONO BIDEZKO ARRETA ZERBITZUA 24 ORDUZ: 747 459 584

- Indarkeria matxistaren arloan adituak diren 2 psikologoak emango dute arreta.
- Datak (2025): Urriaren 10eko 20:00etatik urriaren 14ko 20:00etara eta urriaren 17ko 20:00etatik urriaren 19ko 08:00etara.

Telefonoaren arreta tarte mugatua dagoenez jaien epera, astean zehar, deien desbideraketa egingo da indarkeria matxistaren teknikariaren telefonora. Zehazki, urriaren 14ko 20:00etatik urriaren 17ko 20:00etara eta urriaren 19ko 20:00etatik urriaren 26ko 20:00etara. Data horien ostean telefonoa amatatuko da hurrengo urteko San Faustoko jaietara arte.

Zerbitzu hauei dagokienez, eta Protokoloa sortzeko prozesu partehartzailean adostu zen bezala, kontutan hartu behar da:

- **Telefonoa ez da erasotuarentzat bakarrik.** Herri eragileek (Mugimendu feministak, Udaltzaingoak, produkzio arduradunak eta udal langileek) eta herritarrek erabili ahal dute jaietan eraso matxista baten aurrean nola jarduteko aholkularitza profesionala behar izatekotan.

Arreta telefonoan, erasoaren aurrean, bakoitzaren eskumenen arabera, ahalik eta erantzun hoberena emateko jarraibideak jasoko dituzte espezializatuta dagoen profesional baten eskutik.

- Puntu morean ematen den zerbitzuari lotuta, erasoturen bat momentuan arreta sakonago bat behar badu, edo/eta beste edozein arrazoirengatik, **Andragunean gela prestatua izango da erabilgarri** biktima artatu ahal izateko leku intimo eta seguru batean.
- **Ostalaritzak Protokoloan duten papera sustatuko da.** Tabernetan eraso bat baldin dago bertan lan egiten dauden pertsonak argi izan behar dute zein den jokabide egokia erasotua izan den pertsona ondo eta modu eraginkorrean artatu ahal izateko.

Jaietan zuzenean eraso baten berri izan ahal duten eragile guztiei Protokoloaren informazioa helaraziko zaie, **formakuntza saio** bat eskainiz¹.

ARRETA KOORDINATZEKO IBILBIDEA (ERANSKINAK: FLUJOGRAMA 1)

San Fausto jaietan, Protokolo honen testuinguruan, hauek dira eraso matxista baten sarbideak:

PUNTU MOREA

Pertsona erasotu bat puntu morera hurbiltzen bada, indarkeria matxistan espezializatutako hezitzaile batek arreta emango dio. Aipatutako printzipio gidariak eta irizpideak jarraitu dira arreta horretan.

- Hezitzaileak bere kontakizuna arretaz eta inolako epaiketarik gabe entzungo du, sostengu emozionala eskainiko dio eta momentu horretan dituen beharrei erantzuten saiatuko da.
- Erasotua bakarrik badago, bere konfiantzazko pertsonaren batekin harremanetan jartzea eskainiko zaio.
- Erasotuak urgentziazko arreta behar badu, hezitzaileak ospitalera joateko edo/eta salaketa bat jartzeko bere laguntza eskainiko dio eta Udaltzaingoarekin harremanetan jarriko dira.
- Erasotuak momentuan arreta sakonago bat behar badu, edo/eta beste edozein arrazoirengatik, Andragunean gela prestatua izango da erabilgarri biktima artatu ahal izateko leku intimo eta seguru batean.

¹Lehentasunezko eragileak: Udaltzaingoa; Produkzio arduradunak; Ostalaritza; Txosna batzordea.

- Beti, eskura dauden baliabideen informazioa emango zaio, bere egoerara hobeto egokitzen dena azpimarratuz eta betiere bere erabakiak errespetatuz.
- Eraso bat ikusi duen pertsona bat hurbiltzen bada, eskura dauden baliabideen informazioa emango zaio eta eraso baten aurrean kontutan hartu beharrekoak azalduko zaizkio.

TELEFONOA

Pertsona erasotu batek telefonora deitzen badu, indarkeria matxistan espezializatutako psikologo batek arreta emango dio. Aipatutako printzipio gidariak eta irizpideak jarraitu dira.

- Psikologoak bere kontakizuna arretaz eta inolako epaiketarik gabe entzungo du, sostengu emozionala eta psikologikoa eskainiko dio eta momentu horretan dituen beharrei erantzuten saiatuko da.
- Erasotuak urgentziazko arreta behar badu, psikologoak puntu morera hurbiltzea proposatuko dio edo/eta bera jarriko da harremanetan puntu moreko hezitzaileekin arreta koordinatzeko.
- Beti, eskura dauden baliabideen informazioa emango zaio, bere egoerara hobeto egokitzen dena azpimarratuz eta betiere bere erabakiak errespetatuz.

UDALTZAINGOA

Udaltzaingoak indarkeria matxista kasu bat artatzen badu jaien testuinguruan, arreta espezializatuago bat eskaintzeko.

- Puntu morearen ordutegian bada: pertsona erasotuari horren informazioa eskainiko dio eta hara laguntzea eskainiko dio.
- Puntu morearen ordutegian ez bada: telefonora deituko du arreta modu egoki batean bideratzeko aholkularitza jasotzeko.
- Erasotuak urgentziazko arreta behar badu, Udaltzaingoak puntu moreko hezitzaileekin harremanetan jarriko da, erasotuari ospitalera/komisaldegira edo behar duen edozein beste lekura laguntzea eskaintzeko. Puntu morearen ordutegiz kanpo bada, telefonoarekin harremanetan jarriko dira arreta egokiena zein den adosteko.

Protokoloarekin bat egin duten TABERNAK

Jaien testuinguruan tabernari batek eraso matxista baten berri badu, pertsonari puntu morea eta telefonoaren informazioa eskainiko dio.

Beharrezkoa eta posiblea bada, tabernaria berak deituko du telefonora kasua nola bideratzen jakiteko eta erasoaren berri emateko.

BESTELAKOAK (Kultura arloko langileak, produkzio arduradunak, herri eragileak...)

Jaien testuinguruan eraso matxista baten berri izatean, pertsonari puntu morea eta telefonoaren informazioa eskainiko zaio. Beharrezkoa eta posiblea bada, erasoaren berri izan duen pertsona berak deituko du telefonora, kasua nola bideratzen jakiteko eta erasoaren berri emateko.

Betiere kontutan izan beharko da **sexu-eraso matxista baten aurrean:**

- gogoratu emakumearen erabakia dela salaketa jartzea edo ez jartzea.
- laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea duela jakinarazi.
- salaketa momentuan edo beranduago jarri nahi izanez gero, informatu: ez aldatu arropa, ez edan eta ez jan; eta erasotzailea identifikatu ahal izateko datuak gogoratzea garrantzitsua dela jakinarazi.
- pertsona administrazio-egoera irregularrean badago, helarazi arreta jasoko duela eta bere egoera ez dela okertuko.
- adingabea bada, bere guraso edo bere ardurapean dagoen pertsonarekin harremanetan jarri behar gara.

7. ERANTZUN PUBLIKOA/K

Jarduketa Protokoloa baten barneko atal oso garrantzitsua da ondo zehaztea zer nolako erantzun publikoa emango den eraso matxista bat egon dela jakiten denean.

Atal honetan, azpimarratu behar da alde batetik **erantzun publiko instituzionala** dagoela eta, bestetik, **erantzun publiko soziala**.

Kasu batzuetan, indarkeria matxistaren kontrako erantzun bateratua, irmoa eta sendoa emateko helburuarekin, instituzionala eta soziala bateratzea aproposa izan daiteke. Izan ere, Protokolo honen testuinguruan, horretan lan egiteko prestutasuna egon da.

Halere, administrazioak eta herri eragileek dituzten ekintza-esparru, ikuspegi eta eskumen ezberdinak direla eta, erantzun ezberdinak ematea ere beharrezkoa izan daiteke.

Hortaz, erantzun publikoari dagokionez, eta prozesu partehartzailean ondorioztatutakoaren arabera, hauek dira ondorioak:

- Jai-giroan eman daitezkeen indarkeria matxistaren adierazpena ezberdinak definituko dira eta horien arabera erantzun ezberdinak zehaztu.
- Mugimendu Feministaren ikuspegiarekin bat eginez, eraso matxista baten aurrean, Udalak bere adierazpen instituzionala egingo du, gertatutakoaren informazioa herriari helarazteko eta administrazio bezala horren aurkako erantzuna emateko. Txosna Batzordeak eta Mugimendu Feministak, adierazpen propioa egiteaz gain, Udalaren adierazpenera batzeko aukera izango du.
- Kontzentrazioari dagokionez, aldiz, Udalak Mugimendu Feministak edo/eta Txosna Batzordeak deitzen duena babestuko da eta horretara batuko da. Halere, kasu batzuetan, herri eragileek deitzen ez badute, Udalak kontzentrazio batera deitzeko aukera aztertuko du.

Protokolo honen ondorioetarako, **arduradun orokorra indarkeria matxista teknikaria** izango da. Teknikariak koordinazio zuzena eta etengabea izango du arreta-baliabideen koordinatzailearekin eta honek egunero aurreko eguneko arretaren nondik norakoak azalduko dituen txostena bidaliko dio.

Eraso bat dagoenean erantzun koordinatua antolatzeko eta erantzun publikoa erabakitzeko, bi koordinazio-mahai sortuko dira, San Fausto jaiak irauten duten bitartean aktibo egongo direnak:

1. Mahai egonkorra (WhatsApp taldekoa):

Indarkeria matxista unitateko teknikaria, berdintasun zinegotzia, Udaltzaingoaren arduradun politikoa, Mugimendu Feministaren errepresentazioa (Andereak elkarte, DAFA, Bilgune Feminista) eta Txosna batzordea (talde feminista).

Beharrezkoa denean, erasoaren berri izan duen eragilea deituko da, informazioa helarazteko: Udaltzaingoa, Ostalaritza, elkarteren bat, Arreta Zerbitzuetako profesionalak... Baina erabakiak talde eragileek izango dira.

Mahai egonkorra jaiak hasi eta astebete lehenago bilduko da prozedura ondo zehazteko eta jaietan koordinazio egokia bermatzeko.

2. Mahai instituzionala:

Alderdien bozeramaileak, indarkeria matxista unitateko teknikaria, eta udaltzaingoen arduraduna (ofiziala edo subofiziala).

Hau guztia kontutan hartuta, Durangoko San Fausto jaietan eraso matxista bat gertatuz gero, **erantzun publiko instituzionala** emateko ibilbidea honako hau izango da (**ERANSKINAK: FLUJOGRAMA 2**)

1. Eraso matxista baten berri dago

Iturriak: Puntu morea, arreta telefonoa, Udaltzaingoak artatuta, Protokoloan parte hartzeko erabakia hartzen duen taberna batean, Mugimendu Feministak helarazita edo/eta Komunikabideetan.

Ez da ezinbestekoa izango salaketa judiziala egotea.

Erasoaren berri emateko,

- mahai egonkorreko eragilea baldin bada WhatsApp taldetik komunikatuko du.
- horrela ez bada, erasoaren berri izan duenak indarkeria matxista teknikariarekin harremanetan jarriko da eta honek mahai egonkorrean komunikatuko du.

2. Mahai egonkorra biltzen da

Mahai egonkorreko parte-hartzaileek informazioa biltzeko ahalegina egingo dute gehienez 24 orduko epean bildu ahal izateko. Bilera Andragunean izango da.

3. Erasoari buruzko informazioa aztertzen da

Mahai egonkorrak informazio fidagarri nahikoa dagoela baieztatuko du eta biktimaren konfidentzialtasuna eta babesa bermatuko du.

a) Informazioa fidagarria dela ulertuko da:

- Erasotuak berak helarazi badu informazioa
- Herritar batek zuzenean helarazi badu informazioa, eraso ikusi duelako

b) Informazioa ez da fidagarritzat hartuko:

- Zurrumurru bat dagoenean baina Protokoloan parte hartzen duten eragileek informazioa erasotuaren edo eraso ikusi duen pertsonen baten partetik zuzenean jaso ez dutenean.
- Komunikabideetan agertzen denean baina Protokoloan parte hartzen duten eragileek informazioa erasotuaren edo eraso ikusi duen pertsonen baten partetik zuzenean jaso ez dutenean. Kasua mediatiko bada, Udalaren ardura izango da horren inguruko informazioa lortzea eta behin hori argi izanda adierazpena egitea.

4. Jardunbide egokia bermatzen da

Biktima nor den ezagutzen denean, **arreta baliabideak biktimaren eskura jarri direla bermatuko da**. Jarri ez badira eta biktimarekin kontaktua izateko aukera badago, indarkeria matxista unitateko teknikariak harremanetan jarriko da berarekin, laguntza eta informazioa eskaintzeko.

Adin txikikoa bada, gainera, Gizarte Zerbitzuekin koordinatuko da erantzuna. Durangaldean emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloa aktibatuko da, horrela badagokio.

5. Erantzun publikoa adosten da

- Mahai egonkorak kasuaren nondik norakoak zehaztuko ditu daukan informazioan oinarrituz.
- Horren arabera, erantzun bateraturako eztabaida emango da eragile guztien ikuspuntuetatik egokitzen den erabaki bat hartzeko.
- Martxan jarriko diren neurriak erabakiko dira eta Udalak aktibatu eta ezagutzera emango ditu.
- Adostasunik ez badago, Udalak erabakiko du zein neurri aktibatu.
- Kasuan kasu, erasoaren arabera jaietako ekintzetan geldiuneak egitea edo/ eta bertan behera uztea erabakiko da.
- Ostalaritzak Protokoloan duten papera sustatuko da. Erasoa taberna batean eman bada, gutxienez, musika gelditzea eta argiak piztea gomendatuko da.

6. Mahai instituzionala

Erantzun publikoaz gain, Udalak erantzun instituzionala egingo du. Mahai egonkorra bildu eta gero, mahai instituzionala deituko da, alde batetik, mahai egonkorrean adostu dena helarazteko eta bestetik neurri berriak ezarri behar badira adosteko. Horretaz gain, erantzun instituzionalaren edukia adostuko da, nahiz eta eredu orokorra egongo den. Mahai instituzionala ere erasoaren berri izan denetik 24 ordutara batzea saiatuko da.

ERASO MATXISTEN SAILKAPENA ETA ERANTZUNAK

Sailkapen hau erreferentzia moduan hartuko da eta, horren arabera, Mahai egonkorrak adostuko ditu erantzun zehatzak, eraso ezagutu eta gehienez 24 ordu eta gero ospatutako bileran.

Erailketa matxista (Intentsitate oso altua)	- Jaiak bertan behera uztea - Adierazpen Instituzionala - Kontzentrazioa (Udala Mugimendu Feministak deitzen duenera batuko da eta gainera beste agerraldi propioa egingo du, Udalaren izenean) - Ofiziozko Salaketa
Oso larriak diren sexu-eraso matxistak: berehalako arreta medikua behar du, kalte larriak eragin ditu, erabilitako indarkeria muturrekoa izan da, erasotzaile bat baino gehiago egon da, etabar. (Intentsitate altua)	- Erasotuari eskura dauden baliabide guztiak eskaintzea - Jaien egitarauaren parte diren ekintzak bertan behera uztea (Mahai egonkorrean adostuta) - Adierazpen Instituzionala - Kontzentrazioa (Udala Mugimendu Feministak deitzen duenera batuko da eta ez badago, deituko du) - Ofiziozko Salaketa
Sexu-eraso matxistak: ukituak, irain zuzenak eta errepikatuak, jazarpena, genitalak erakustea, etabar. (Intentsitate ertaina)	- Erasotuari eskura dauden baliabide guztiak eskaintzea - Jaien egitarauaren parte diren ekintzetan geldiuneak egitea edo/eta hasieran gaitzespena adieraztea (Mahai egonkorrean adostuta) - Adierazpen Instituzionala - Kontzentrazioa (Udalak Mugimendu Feministak deitutakoari batzen da eta ez badago, deituko du)
Intentsitate baxuko sexu-eraso matxistak: begiradak, baboseoa, irainak, norberaren espazioaren inbasioa, behin eta berriro kontaktua saiatzea... eta emakumeen askatasuna mugatzen duten jarrera guztiak. (intentsitate baxua)	Jaien amaieran, hauen berri eman, salaketa orokor batean (prentsa oharra).
Biktimen kontakizuna izango da sexu-eraso matxistaren intentsitatea definitzeko balioko duen informazioa	

ERANSKINAK

FLUJOGRAMA 1


FLUJOGRAMA 2

PROTOKOLOA SORTZEKO PROZESU PARTEHARTZAILEA

OINARRIZKO JARRAIBIDEAK ERASO MATXISTA BATEN
AURREAN JARDUTEKO


ADIERAZPEN INSTITUZIONALEN EREDUAK

FLUJOGRAMA 1




FLUJOGRAMA 2

ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALA EMATEKO IBILBIDEA



FLUJOGRAMA 2



PROTOKOLOA

SORTZEKO PROZESU

PARTEHARTZAILEA

Protokolo hau Udaleko indarkeria matxista unitateak sustatutako prozesu partehartzaile baten bitartez eraiki da. Udalak Errotik Kooperatiba Feminista kontratatu du, lizitazio publiko bidez, aholkularitza tekniko lanak egiteko 2025 urtean zehar.

Prozesuan Udal Gobernua eta beste alderdietako zinegotziek, udaleko teknikariek eta herri eragileek parte hartu dute. Hain zuzen:

Udalaren partetik:

- Berdintasun arloa: Indarkeria matxista unitateko teknikaria eta berdintasunerako teknikaria
- Kultura saila
- Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoak
- Udaltzaingoa

Herri eragileen artean:

- Jai Batzordea
- Txosna Batzordea
- DAFA (Durangoko Autodefentsa Feminista Asanblada)
- Durangoko Bilgune Feminista (Txosna Batzordearen parte)
- Andereak elkarte
- Kuir Eztanda elkarte

Prozesuak lau fase izan ditu:

TESTUINGURUA ETA MARKO AMANKOMUNA ERAIKITZEA

Saio hau amankomuna izan da (ekainaren 12an) eta horretan:

- Prozesua partehartzailearen nondik norakoak azaldu ziren.
- Teoria eta jarduketa marko amankomuna aurkeztu eta elkarbanatu zen.
- Durangon jaietan indarkeria matxistari aurre egiteko dagoena eta falta denari buruz hausnartu zen.
- Beharrak eta erronka nagusiak identifikatu ziren.

PROTOLOKOA ERAIKITZEA

Fase honetan saioak bereizi egin dira. Alde batetik, Udaleko alderdi politikoen ordezkariak eta udal teknikariak saio batean egon dira eta, beste alde batetik, herri eragileak, beste saio batean. Fase honetako saioak uztailaren 15ean ospatu dira, bata goizez eta beste arratsaldean.

Landutako puntuak berdina izan dira bietan baina ikuspuntua eta sakontzeko puntuak, aldiz, ezberdinak.

- Protokoloaren markoaren birpasaketa:
- Betebeharra + testuinguru legala
- Indarkeria matxista kontzeptualizazioa: indarkeria lgtbifobikoa barne
- Indarkeria matxista jaietan: sexu askatasunaren kontrako indarkeria
- Lehenengo saioan egindako diagnosia
- Protokoloaren eraikuntzarako talde dinamika

PROTOKOLOAREN KONTRASTEAK ETA EKARPENAK

Lan saioak eta gero, Errotik Kooperatibak Protokoloaren zirriborroa aurkeztu die parte hartzaile guztiei eta hauek astebeteko epea izan dute gainbegiratzeko eta ekarpenak egiteko.

Udal langileak eta politikariak korreo elektroniko bidez egin dituzte haien ekarpenak. Herri eragileekin, aldiz, kontraste saio bat ospatu da. Saioa irailaren 15ean izan da.

PROTOKOLOAREN ONARPENA OSOKO BILKURAN ETA AURKEZPENAK

Protokoloa irailaren 24ko Osoko Bilkuran aurkeztu egin da.

OINARRIZKO JARRAIBIDEAK ERASO MATXISTA BATEN AURREAN JARDUTEKO

DuranGOAZEN JAIK ASKE DISFRUTATZERA!

Jaietan harreman osasuntsuak, askeak eta berdintasunezkoak sustatuko ditugu, errespetuan eta elkarbizitzan oinarrituak.

Ligoteo sana nahi dugu. EZETZA ez da negoziazioaren hasiera, tematzen bazara jazarpenaren hasiera da.

SOILIK BAI DA BAI. Ados egon behar zarete, isiltasuna ez da baimena.

Alkohola edo beste sustantziaren bat kontsumitzeak ez du INOIZ erasoa justifikatuko.

Ez da komentario ezta jarrera sexistarik onartuko.

Ez da LGTBIQA+fobia adierazten duten komentariarik ezta jarrerarik onartuko.

JAIK ERE GEUREAK DIRA! Gorputz, adierazpen eta janzkera guztiak ONGI ETORRIK DIRA!

Pertsona batek uste badu eraso bat jasan duela, eraso bat da! Ez zalantzan jarri!

Edozein erasoren aurrean jarrera aktiboa izango dugu, laguntza eskainiko dugu, betiere erasotua izan den pertsonaren erabakia errespetatuz.

ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE!

GOGORATU! Baimenik gabeko zirriak eta musuak, intimidazioa, komentario, irain edo keinu sexistak eta LGTBIQA+fobikoak indarkeria matxistak dira!

Mesedez, zure laguna horrelako jarrerak baditu, ez izan konplize! Irain eta iruzkin matxisten aurrean barre egitea edo/eta ez erantzutea ez da aukera bat indarkeria matxistari aurre egiteko. **Berdin jarraitzen badu, gonbidatu etxera joaten.**

Eraso baten lekukoa bazara:

- Lehenik eta behin, erasotua izan den pertsona arriskutik kanpo dagoela ziurtatu eta laguntzarik behar duen egiaztatu. **Arriskua berehalakoa bada: deitu 112ra.**
- Ez utzi bakarrik. Bere konfiantzazko den norbaitekin harremanetan jartzen saiatu.
- Bere beharrak eta erabakiak errespetatu.
- Ez jarri zalantzan bere kontakizuna eta ez epaitu.

Eskura dituen baliabideen berri eman:

San Fausto jaietan:

TELEFONO BIDEZKO ARRETA 24 ORDUZ

Jaiak irauten duten bitartean (urriaren 10tik 14ra eta 17tik 19ra) 24h telefono zerbitzua eskuragarri egongo da, indarkeria matxistan aditua den psikologo batek artatuta, deitu eta galdetu zelan jokatu behar duzun: **747 459 584**

Eraso matxista baten lekuko izan bazara edo/eta edozein zalantza edo laguntza behar baduzu, telefono hau ere zuretzat da.

PUNTU MOREA

Urriaren 10, 11, 12, 13, 17 eta 18

20:00etik 02:00era

Eraso matxisten kontrako arreta eta informazio puntua.
Kokapena:



Eta urte osoan zehar:

- Sexu-indarkeriaren emakume biktimei arreta osoa emateko zerbitzua (24 ordu, 365 egun): **900 840 977**
- Indarkeria matxistaren emakume biktimen arretarako SATEVI zerbitzua: **900 840 111**
- Berdindu (lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei eta haien ingurukoei informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua): **900 840 128 / 617 813 087** (WhatsApp)

Salaketa jarri nahi badu, zeure burua lekukotzat eskaini edo zeure datuak eman, aurreragoko neurrietan biktimarentzat lagungarri izateko.

- Durangoko Ertzaintza: **944 669 300**
- Durangoko Udaltzaingoa:
Barrenkale 17, 48200 Durango, Bizkaia
946 030 010 / udaltzaingoa@durango.eus

ADI!

Sexu-eraso matxista baten aurrean,

- ez aldatu arropa, ez edan eta ez jan.
- hurbildu osasun zentzura, laguntza medikoa eskainiko dizute.
- zuk erabaki salaketa judiziala jarri nahi duzun.
- laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea daukazu.
- gogoratu erasotzailea identifikatu ahal izateko datuak.

Pertsona administrazio-egoera irregularrean badago, helarazi arreta jasoko duela eta bere egoera ez dela okertuko.

SAN FAUSTO JAIETAN EZ DUGU INOLAKO ERASO MATXISTARIK ONARTUKO!

2025eko mezuak:

- DuranGOAZEN JAIK ASKE DISFRUTATZERA!
- JAIK ERE GEUREAK DIRA! GORPUTZ, ADIERAZPEN ETA JANZKERA GUZTIAK ONGIETORRIAK DIRA!
- SAN FAUSTO JAIETAN EZ DUGU INOLAKO ERASO MATXISTARIK ONARTUKO!
- ERASO MATXISTAK EZ DIRA TXANTXA. ZURE LAGUNEN IRAIN ETA IRUZKIN MATXISTEN AURREAN... EZ IZAN KONPLIZE!

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EREDUAK

1. EREDUA: HILKETA MATXISTA BATEN AURREAN JENDAURREAN JAKINARAZTEA

Gure udalerrian heriotza eragin duen eraso matxistaren ondoriozko erailketaren aurrean, Durangoko Udalak gure gaitzespen irmoena adierazi nahi du, baita biktimaren inguruarekiko dugun babesa eta hurbiltasuna ere, bere eskura jarritz behar dituen baliabide psikologikoak, juridikoak, sanitarioak, babesekoak eta harrerakoak, eta bere interesei eragiten dien informazio guztia duela bermatuz.

Illo horretan, Durangoko Udalak, kasuaren berri izan duen unetik, eta auziari buruzko ahalik eta ikuspegi osoena eta zehatzena izateko aukera emango digun informazioa kontrastatu ondoren, *jaietan indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa* aktibatu du, eta premiazko bilera baterako deialdia egin du, informazio guztia biltzeko eta erantzun publiko eta instituzionala eta biktimen ingurunearekiko arreta koordinatzeko.

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da. Erailketa matxismoaren adierazpenik larriena da, eta lehen mailako gizarte-arazoa, duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten duena, batez ere pairatzen eta aurre egiten dioten emakumeena.

Indarkeria hori ez da ekintza isolatu bat edo batzuk, gure gizartea egituratzen duten jokabide esplizituen, mezu normalizatuen eta sinbolikoen sare bat da, azken helburua emakumeak gizonen mende mantentzea eta indarrean dagoen sistema heteropatriarkalak markatutako mugak (indarkeria sexistaren edo LGTBIfobikoaren arabera) urratzen dituen gorputzik, eredurik eta/edo portaerarik egotea ez baimentzea izanik.

Illo horretan, Durangoko Udalak, emakumeen/LGTBI pertsonen giza eskubideak (indarkeria sexistaren edo LGTBIfobikoaren arabera) benetan baliatzen direla bermatzeko ardura duen erakunde publikoa den aldetik, neurriak bultzatzen jarraituko du udal-erakundeek eta, oro har, herritarrek edozein eraso matxistari berehala eta irmo erantzun diezaioten, biktimari lehentasuna eman diezaioten, eta prebentzio-jarduerak gara daitezen emakumeei/LGTBI pertsoneri (indarkeria sexistaren edo LGTBIfobikoaren arabera) indarkeriari aurre egiteko eta erasotzaileen gizarte-zigorgabetasuna saihesteko tresnak emateko.

Gainera, Udalak konpromisoa hartzen du bere eskumenak gauzatzen laguntzen eta lan egiten jarraitzeko, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Udalak:

Jakinarazi du ordezkaritza instituzionalak heriotza eragin duen hilketa/eraso matxista honen aurkako gaitzespena adieraziko duela kontzentrazio batekin...

Bat egiten du mugimendu feministak/LGTBI kolektiboek deitutako gaitzespen-ekitaldiekin, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu horietan parte hartzera, bai eta Udalari gure babesa eska dezaketen gaitzespen-ekimenen berri ematera ere.

Gainera, Udal honek gogorarazten digu San Fausto jaietan honako zerbitzu hauek daudela eskuragarri:

- **Informazio- eta arreta-gunea (“puntu morea”):** urriaren 10, 11, 12, 13, 17 eta 18an, 20:00etatik 02:00etara, Landako Gunean.
- **Telefono bidezko arreta-telefonoa:** 24 ordu, 747 459 584: urriaren 10etik urriaren 14ra 20:00etatik 20:00etara eta urriaren 17tik urriaren 19ra, 20:00etatik 08:00etara.

Eta urte osoan zehar:

- **Indarkeria matxistako unitatea,** Andragunean bertan (Lariz Torre, 2):
 - o Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 14:00etara
 - o Astearte eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
 - o Telefonoa: 618 79 13 33
 - o Mail: misasi@durango.eus
- Durangaldeko **emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II.** Protokoloa. Informazio gehiago Udalaren webgunean.
- Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko zerbitzua (24 ordu, 365 egun): **900 840 977** (sexu-indarkeria bada, nabarmendu).
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako eta hurbileko pertsona, senide eta profesionalentzako telefono bidezko arreta espezializatuko zerbitzua (SATEVI): **900 840 111** (doakoa; ez du arrastorik uzten fakturan; arreta 51 hizkuntzatan; entzun edo hitz egin ezin duten pertsonentzako arreta).
- Berdindu (sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaiei buruzko informazio- eta arreta-zerbitzu publikoa): **900 840 128 / 617 813 087** (WhatsApp) (nabarmendu lgtbi+fobikoa den).

2. EREDUA: ERASO MATXISTA BATEN AURREAN JENDAURREAN JAKINARAZTEA

Durango Udaletik gure gaitzespen irmoena adierazi nahi dugu gure udalerrian gertatu berri den eraso matxista/Lgtbi+fobikoa/sexuala dela eta, baita biktimarekiko eta haren inguruarekiko dugun babes eta hurbiltasuna ere, bere eskura jarritz eskatzen dituen baliabide psikologikoak, juridikoak, sanitarioak, babesekoak eta harrerakoak, eta bere interesei eragiten dien informazio guztia duela bermatuz.

Illo horretan, Durango Udalak, kasuaren berri izan duen unetik, eta auziari buruzko ahalik eta ikuspegi osoena eta zehatzena izateko aukera emango digun informazioa kontrastatu ondoren, *jaietan indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa* aktibatu du, eta premiazko bilera baterako deialdia egin du, informazio guztia biltzeko eta erakundearen erantzuna eta biktimari eta haren inguruneari eman beharreko arreta koordinatzeko.

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da, eta emakumeen eta LGTBI pertsonen (indarkeria sexistaren edo LGTBI fobikoaren arabera) duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten duen lehen mailako gizarte-arazoa. Indarkeria hori ez da ekintza isolatu bat edo batzuk, gure gizartearen egituratzen duten jokabide esplizituen, mezu normalizatuen eta sinbolikoen sare bat da, azken helburua emakumeak gizonen mende mantentzea eta indarrean dagoen sistema heteropatriarkalak ezarritako mugak urratzen dituen gorputzik, eredurik eta/edo portaerarik ez egotea izanik.

Illo horretan, Durango Udalak, emakumeen eta LGTBI pertsonen Giza Eskubideen erabilera eraginkorra bermatzeaz arduratzen den erakunde publikoa den aldetik, neurriak bultzatzen jarraituko du udal-erakundeek eta, oro har, herritarrek edozein eraso matxistari berehala eta irmo erantzun diezaioten, biktimari lehentasuna eman diezaioten, emakumeei eta LGTBI pertsonari (indarkeria sexistaren edo LGTBI fobikoaren arabera) indarkeriari aurre egiteko eta erasotzaileen gizarte-zigorgabetasuna saihesteko tresnak emateko prebentzio-jarduerak gara daitezten. Gainera, Udalak konpromisoa hartzen du bere eskumenak gauzatzen laguntzen eta lan egiten jarraitzeko, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Udalak jakinarazi du ordezkari-tza instituzionalak elkarretaratze baten bidez adieraziko duela erasoaren gaitzespena.

Eta bat egiten du mugimendu feministak (eta/edo LGTBI kolektiboek) deitutako gaitzespen-ekitaldiekin, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu ekintza horietan parte hartzera, bai eta gure babes eska dezaketen gaitzespen-ekimenen berri udalari ematera ere.

Gainera, Udal honek gogorarazten digu San Fausto jaietan honako zerbitzu hauek daudela eskuragarri:

- **Informazio- eta arreta-gunea (“puntu morea”):** urriaren 10, 11, 12, 13, 17 eta 18an, 20:00etatik 02:00etara, Landako Gunean.

- **Telefono bidezko arreta-telefonoa:** 24 ordu, 747 459 584: urriaren 10etik urriaren 14ra 20:00etatik 20:00etara eta urriaren 17tik urriaren 19ra, 20:00etatik 08:00etara.

Eta urte osoan zehar:

- **Indarkeria matxistako unitatea,** Andragunean bertan (Lariz Torre, 2):
 - o Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 14:00etara
 - o Astearte eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
 - o Telefonoa: 618 79 13 33
 - o Mail: misasi@durango.eus
- Durangaldeko **emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II.** Protokoloa. Informazio gehiago Udalaren webgunean.
- Sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntza integrala emateko zerbitzua (24 ordu, 365 egun): **900 840 977** (sexu-indarkeria bada, nabarmendu).
- Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako eta hurbileko pertsona, senide eta profesionalentzako telefono bidezko arreta espezializatuko zerbitzua (SATEVI): **900 840 111** (doakoa; ez du arrastorik uzten fakturan; arreta 51 hizkuntzatan; entzun edo hitz egin ezin duten pertsonentzako arreta).
- Berdindu (sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaiei buruzko informazio- eta arreta-zerbitzu publikoa): **900 840 128 / 617 813 087** (WhatsApp) (nabarmendu lgtbi+fobikoa den).

3. EREDUA: ERASO MATXISTARI BURUZKO BAIEZTAPENIK GABEKO INFORMAZIOEN EDO INFORMAZIO FIDAGARRI NAHIKORIK EZ DUTENEN AURREAN JENDAURREAN JAKINARAZTEA

San Fausto jaietan izandako eraso matxista/lgtbi+fobiko/sexual bati buruz egunotan zabaldu diren informazioak direla eta, Durangoko Udala ahalik eta informazio gehien biltzen saiatzen ari da, ahalik eta modu egoki eta egokienean erantzuteko eta jarduteko.

Hala ere, Udalak gaitzespen irmoena adierazi du, bai eta biktimaren inguruarekiko babesa eta hurbiltasuna ere, behar dituen baliabide psikologikoak, juridikoak, sanitarioak, babesekoak eta harrerakoak bere esku jarritz.

Indarkeria matxista Giza Eskubideen urraketa larria da, eta lehen mailako gizarte-arazoa, pairatzen eta aurre egiten dioten emakumeen eta LGTBI pertsonen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten duena. Indarkeria hori ez da ekintza isolatu bat edo ekintza isolatu bat, gure gizartea egituratzen duten jokabide esplizituen, mezu normalizatuen eta sinbolikoen sare bat da, azken helburua emakumeak gizonen mende mantentzea eta indarrean dagoen sistema heteropatriarkalak ezarritako mugak urratzen dituen gorputzik, eredurik eta/edo portaerarik ez egotea izanik.

Illo horretan, Durangoko Udalak, emakumeen eta LGTBI pertsonen giza eskubideak (indarkeria sexistaren edo LGTBI fobikoaren arabera) benetan baliatzen direla bermatzeko ardura duen erakunde publikoa den aldetik, neurriak bultzatzen jarraituko du udal-erakundeek eta, oro har, herritarrek edozein eraso matxistari berehala eta irmo erantzun diezaioten, biktimari lehentasuna eman diezaioten, emakumeei eta LGTBI pertsonari (indarkeria sexistaren edo LGTBI fobikoaren arabera) indarkeriari aurre egiteko eta erasotzaileen gizarte-zigorgabetasuna saihesteko tresnak emateko prebentzio-jarduerak gara daitezen. Gainera, Udalak konpromisoa hartzen du bere eskumenak gauzatzen laguntzen eta lan egiten jarraitzeko, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatzeko.

Gainera, Udal honek gogorarazten digu San Fausto jaietan honako zerbitzu hauek daudela eskuragarri:

- **Informazio- eta arreta-gunea (“puntu morea”):** urriaren 10, 11, 12, 13, 17 eta 18an, 20:00etatik 02:00etara, Landako Gunean.
- **Telefono bidezko arreta-telefonoa:** 24 ordu, 747 459 584: urriaren 10etik urriaren 14ra 20:00etatik 20:00etara eta urriaren 17tik urriaren 19ra, 20:00etatik 08:00etara.

Eta urte osoan zehar:

- **Indarkeria matxistako unitatea,** Andragunean bertan (Lariz Torre, 2):
 - o Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 14:00etara
 - o Astearte eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
 - o Telefonoa: 618 79 13 33
 - o Mail: misasi@durango.eus

- Durangaldeko **emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II.** Protokoloa. Informazio gehiago Udalaren webgunean.
- Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko zerbitzua (24 ordu, 365 egun): **900 840 977** (sexu-indarkeria bada, nabarmendu).
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako eta hurbileko pertsona, senide eta profesionalentzako telefono bidezko arreta espezializatuko zerbitzua (SATEVI): **900 840 111** (doakoa; ez du arrastorik uzten fakturan; arreta 51 hizkuntzatan; entzun edo hitz egin ezin duten pertsonentzako arreta).
- Berdindu (sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaiei buruzko informazio- eta arreta-zerbitzu publikoa): **900 840 128 / 617 813 087** (WhatsApp) (nabarmendu lgtbi+fobikoa den).

4. EREDUA: JAIETARAKO INFORMAZIO-IRAGARKIA

Testu orokorra indarkeria matxistaren aurrean (audioa), jaietako programaren barruko jardueren geldialdiaren berri emateko

“Durangoko Udalak indarkeria matxistaren gaitzespen irmoa adierazi nahi du adierazpen guztietan, Giza Eskubideen urraketa larritzat eta lehen mailako gizarte-arazotzat jota.

Hori dela eta, antolatutako jarduera hamar minutuz etengo da. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatzeko lanean jarraituko dugu.

DURANGO indarkeria matxistaren aurka!”

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA KASUETARAKO JARDUERA PUBLIKOETARAKO GOMENDIOAK

[https://www.eudel.eus/es/file/documentos_ficheros/
recomendacionesviolenciacontramujeres.pdf](https://www.eudel.eus/es/file/documentos_ficheros/recomendacionesviolenciacontramujeres.pdf)



**DuranGOAZEN JIAK
ASKE DISFRUTATZERA!**

**SAN FAUSTOETAN EZ DUGU INOLAKO
ERASO MATXISTARIK ONARTUKO!**